



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA elkartu da, bigarren deialdian, Vitoria-Gasteizen, 2022ko urtarrilaren 12ko 16:00etan, Administrazioak utzitako lokalean eta kide hauek bertaratu dira:

Juan Luis Ibarra Robles jauna, batzordeburua.
José Antonio Nieto Antón jauna
Estefanía Ocáriz Passevante andrea
Miren Ortubay Fuentes andrea
Ricardo Egiguren Mendieta jauna
Francisco Javier Hernández Manrique jauna, idazkaria

Lehenengo puntua.- Joaquín Giménez García jaunak, batzordeburuak, arrazoi pertsonalengatik dimititu duenez, beste batzordekide bati ongi etorria eman diogu, Juan Luis Ibarra Robles jaunari.

Bigarren puntua.- Juan Luis Ibarra Robles jauna batzordeburu izendatua izan da, aho batez.

Hirugarren puntua.- Batzordekide bati joan-etorri gastuak ukatu zaizkiola eta, erreklamazioa egitea erabaki da; gure iritziz joan-etorri horien jatorria behin-behinekoa izan arren ohikoa den bizileku bat izan baita.

Laugarren puntua.- Batzordearen jardueraren edukiari eta produktibitateari buruz hausnartu da. Datuak eskatzeko Udaltzaingoak Koordinatzeko Arlora jotzea erabaki da, eta harreman instituzionalak egitea.

Halaber, hiru jarduera-ildo hauek hobeto zehaztea erabaki da:

- 1) Ertzaintzaren eta udaltzaingoaren pertzepzio sozialari buruzko azterlanen egoeraren inguruko informazioa;
- 2) Segurtasun publikoaren sisteman gizarte-konfiantzari eragiten dioten jokabide polizialak direla eta, kexak azaltzeko kanalei eta prozedurei buruzko ezagutza; eta
- 3) Batzordea aurkeztea erakunde publikoen eta erakunde pribatu batzuen eremuan, baldin eta erakunde horiek presentzia badute autonomia erkidegoko poliziarekin eta udaltzaingoekin harreman handia daukaten gizarte eremuetan.

Eta lantzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilera amaitu da egun horretako 18:00etan.